




Berrizko Besoitaormaxea

ETXOLATIK BASERRIRA

 Teresa Campos López

 Imanol Larrinaga





XII. MENDEA

HARRI ETA EGURREZKO ERAIKINA SORTU BAINO LEHEN: ETXOLAK

Gaur egun gutxi da euskal nekazariek Erdi Aroan zituzten etxebizitzei buruz daukagun informazioa. Hori kontuan hartuta, baieztatu daiteke etxola horiek ez zutela inolako antzirik XV. mendearen azken urteetan eraikitzen hasi ziren eta gaur arte zutik iraun duten baserriekin.





XVI. MENDEA

ETXE MODERNOAREN SORKUNTZA

XVI. mendean pentsaera modernoaren garaian eraiki ziren baserriak zutik diraute. Euskal baserrien loraldiaren garaia izan zen hura. Horren adibidea da Besoitaormetxea.



📷 Besoitaormaetxea baserria gaur egun.

Gerediaga Elkarteak hasitako proiektu baten emaitza da honakoa. Elkarteak ikerketak Durangaldeko ondarea balorean jartzeko eta garatzeko zuen garrantziaz jabetu zen. Egitasmoak, gero, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso zuen 2016an Bizkaiko ondare etnografikoaren zabalkundea, ikerketa eta zaintza arloko ekintza moduan. Bizkaiko baserrietako bizimoduen gaineko interpretazioa eta ikerketa burutu dugu, eta abiapuntua Berrizko Besoitaormaetxea baserrian egindako lanak izan dira.

Besoitaormaetxea berezia da. Aukera eman digu eraikin eta espazio bakarrean baserri bateko ekoizpen sisteman izan den bilakaera aztertzeko eta Bizkaiko baserrietara estrapolatu ahal izan dugu. Gainera, baserritzat daukagunaren karakterizazioaren eta konfigurazioaren aurreko garaian hasi eta gaur egunera artekoa aztertu daiteke. Ikerketa iturri eta disziplina ezberdinetatik jasotako datu eta dokumentazioa erabilita egin da. Batzuk etnografia zientziari dagozkionak, baina egungo teknologia berriak eta beste teknika batzuk alboratu barik. Iker-

keta osoa eta konplexua egin da, eta bereziki lortutako emaitzak balorean jarri eta horien gizarteratzea eta zabalkundea zaindu da.

2014. urteko udan baserria berritzeko lanen ondorioz lan arkeologikoak egin ziren, eraikina babestuta zegoelako. Berta jasotako informazioa izan zen proiektu honen abiapuntua. Teorian, zundaketa bi egitea zen zeregina, lanen kontrol arkeologikoa eta baserriaren dokumentazio fotogrametrikoa. Baina, eraikinaren barrualdea hutsik zegoela apro-

betxatuz XVI. mendeko eraikinaren lurzoru osoko dokumentazioa egiteko aukera egon zen. Ikerketak emandako emaitza garrantzitsuak, neurri handi batean, horri esker izan dela uste dugu.

Lortutako emaitzekin ikuspegi berria dugu orain baserriei buruz eta Bizkaiko garapen historikoan izan duten garrantziaz; egungo lurraldearen fisonomia ulergaitza litzateke baserrien iragana eta bertako bizimodua aintzat hartu barik.

Baserrira Bizkaiko arkitekturan adibiderik bereziena eta berezkoena da. Ikuspegi ekonomikitik eta fami-

liaren ekoizpen-zelula modura aztertu ezker, baserrien sorrera XII eta XIII mendeetako da. Eraikin mota zehatz bat bezala aintzat hartu ezker, aldiz, 500 urte egin beharko genuke atzera. Azpimarraztekoa da, familia baten bizilekua edota nekazal zein ganadu ustiapen hutsa baino gehiago dela. Baserriaren helburua hornitzailea izan da beti; etxebizitzia, korta, ganbara, dolare, aletegi, upategi, lantoki, trasteleku, lastategi, usotegi, erlategi, etabar.


Erdi Aroan Euskal Herriko nekazarien bizilekuei buruz orain arte izan ditugun ezagutzak sendotasun gutxikoak ziren. Orain baieztatu dezakegu XVI mendeko harrizko baserriaren aurretik okupazioa izan zela postu-zuloei esker eta lurreen zulatutako silo bati esker. Silo hauetan zereala gordetzen zen beranduago erabiltzeko. Sistema honen ezaugarri nagusia hermetikotasuna zen, zereala hondatzea ekidituz. Momentuko zereal beharriaz erantzuteko, beste biltegitratze sistema batzuk erabiltzen ziren: egurrezko ontziak, zeramikazkoak edota otzarak.

Azken urteetan Igartubeiti (Ezkio-Itsaso) eta Landeko Goikoa (Mungia) baserrietan esku-hartze arkeologikoak egin dira. Lurrean iltzatutako poste txikiak ipinita Erdi Aroko azpiegituren aurretik lurzoru horietan okupazioa izan zela argi ikusi da bietan. Baina erabilerari buruzko guztia ikertzeko dago. Bizileku horiek ez dute zerikusirik XV. mende amaieran eraikitzen hasi eta gaur egunera arte zutik iraun duten baserriekin.

Besoitaormaetxean bi etxolen aztarnak dokumentatu dira: lehenengoa oinplano borobila eta hurrengoa errektangularra. Bigarrena C14 analisei esker datatu egin da eta XII. mendeko kronologia baieztatu dugu. Poste-zulo handiagoak identifikatu dira. Barrualdea ekintza ezberdinetarako bideratuta eta zatikatuta zegoela ere ondorioztatu dugu. Era honetan frogatu ahal izan dugu zientifikoki etxolatik baserrira izan den bilakaera.







XVIII. MENDEA

BASERRIA ARTOAREN GARAIAN: ALDAKETAK ETA ERAGINAK

Ekonomiako sektorerik aktiboena krisi handian sartu ziren. Ondorioz gizartea baserritartu egin zen. Batetik aberatsek beraien inbertsiorako aukera ikusi zuten porrot egiteko arriskurik gabe; eta bestetik pobreek bertan lana eta bizi-rauteko bitartekoak bilatu zituztelako.



 **Besoitaormaetxean egindako indusketen irudia eta baserria gaur egun.**

Bizkaian baserriei buruz ditugun eredu guztiak XVI. mendekoak dira. Ez dago data hau baino lehenagoko harrizko baserririk. Izena, gainera, baserrien ezaugarri berezietako bat da. Izenari esker jabeak eta bertan bizi direnak identifikatzen dira eta horrek denboran zehar irauten du.

XVI. mendea arkitekturari dagokionez esperimentaziorako eta berrikuntza erabakiorretarako garaia izan zen. Hasierako hamarkadak gaindituta, Bizkaian eraiki ziren baserri guztiek itxituretarako egurra baztertu zuten. Aterpe eta guzti harrizko baserriaren abantailak onartu zituzten, biltegirako, lanerako eta hartueman sozialetarako eskaintzen zizkien aukerak aprobetxatuz. Nekazaritza etxeak barrualdea egurrezko zutabeekin eraiki ziren, harrizko hormak beheko solairuan eta goiko pisuetan trenkada arinagoekin.

Besoitaormaetxea harrizko lan bikaina da. Iparraldera daukan hormari begiratuta igarri daiteke. Kanpoaldean siloa dauka – garaia – uzta soberakina gordetzeko erabiltzen zena. Gordetzen den Bizkaiko garaietan azken adibideetako bat da. Harrizko lau zutaberen gainean kokatuta dago. Familia guztiarentzat jakiak gordetzen ziren bertan, konpartimentu ezberdinetan. Hezetasunetik eta marraskariengandik ere babestuta egoten zen.

Eraikinaren bihotzean dolarea dago. Eraikinaren atzealdean, hormek inguratzen dutela esan daiteke. Nahiz eta nekazal errekurtsoen ustiapenean jarraipena izan, sagarra landatu eta sagardoa egiten hasi ziren, gero upeletan gordez. Ekoizpen espezializatua zen.

Landaguneko bizitza eta ohiturak errotik aldatu ziren XVIII. mendean artoa eta Amerikako landareak agertu zirenean. Baserriak, eraikin modura, egokitu egin behar izan zuen artoaren ustiapen prozesura: artaburu bakoitzari eskuz kendu behar zitzaizkion hostoak eta garandu aurretik leku aireztatu batean sikatzen utzi behar zen, garaua ez zedin hartzitu. Horregaitik, eraikinaren aurrualdea, egurrezko tabikeak zituen ganbara, artaburuak sikatzeko lekurik egokiena bihurtu zen. Artoaren ugaritzak ez zuen gariaren desagerpena ekarri nahiz eta etekin baxuagokoa izan. Gariaren irin zuria estimatua zen eta salgai erreza zen.

Maiorazgoei eta maizterrei laborantza berriak alboratuta zituzten lursoruei etekina ateratzeko aukera eman zien. Ordura arte ganaduarentzat bakarrik zituzten lurrak aprobetxatzen hasi ziren. Baserri berriak agertu ziren etekin portzentaje baten truke lurrak ustiatzen utziz edota ordura arte emigratzea beste aukerarik geratzen ez zi-



 Garaia uzta soberakina gordetzeko erabiltzen zen.

tzaien nekazarien seme-alabei alokairuan emanda. Honekin batera, larre naturalak desagertzen ari zirela konpentsatzeko ganadua, behiak eta idiak nagusiki, kortan denbora gehiago izaten zituzten. Besoitaormaetxean, esaterako, barruko dolarea desagertu egin zen ganaduari lekua uzteko: korta gaur egun ulertzen dugun moduan egokitu zen. Sagardoa eta sagarrak ez ziren desagertu, baina ez ziren behar lehengo sagasti eta dolareak ekoizpena autokontsumozkoa izatera pasatu zelako.

XVII. eta XVIII. mendeko baserrietan gizonek eta emakumeek berdin lan egiten zuten soroko lan gogorretan. Laiatzeko, belarra mozteko zein uzta batzeko esku asko izaten zen. Produktzioa handia zen, baina pertsonako errendimendua – produktibitatea – oso txikia. Horrek, lurra agortzeraino behartzen zuten. XVIII. mendea amaitu orduko urtetik urtera uzta txikiagoa lortzen zen populazioaren hazkundera gertatzen zen bitartean.

Euskal Herrian normala zen etxebizitza bakoitza familia unitate baten bizileku izatea. Baina errentadunek lurra ustiapen modura ulertzen zuten. Etekin gehiago lortzeko formula etxebizitza bakoitza hainbat familiri alokatzea izan zen. Baserrien eskaria larria zen eta erreza zen ezkondu eta euren kabuz bizimodua egiten hasteko prest zeudenak

bilatzea. Era horretan, oinordetzan jasotako baserri asko abandonatu egin ziren XVII. eta XVIII. mendeetan. Ostean, barrua zatitu egiten zen bizileku bat baino gehiagotan eta maizterrei ematen zitzaizkien. Esaterako, 1700. urtetik aurrera bi familiren bizileku izango ziren baserriak diseinatzen hasi ziren.

Ondorio modura, Besoitaormaetxea Euskal Herriko baserrien historia eta bizimodua erakusten duen metafora zoragarria dela baieztatu dezakegu: etxola izan eta harrizko baserri bihurtu zen bizilekua, irauteko nekazaritza oinarri zuen familia izate-tik urrineko lurraldeetatik ekarritakoak landatu eta ekoizpen berriari ateak zabaldu zizkiona, dolarea erabili eta gero utzi edota ganadua eraikinaren barruan egokitu eta jabegoa zatitu zutena. Eta gaur egun baserri garaikidea da, bizileku modura aurreikusita eta ez ustiapen zelula bezala. Hala ere, historia handia jaso du oinordetzan.